

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA. PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOAK.

Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Gaur egun emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik, era batera eta bestera eragiten den indarkeriaren fenomenoaren izendatzeko kontzeptu asko erabiltzen dira: “indarkeria sexista”, “gizonezkoen indarkeria”, “genero-indarkeria”, etab. Dena den, terminologia bateratu eta errakuntzak saihestu nahian, “emakumeen aurkako indarkeria” erabiltzea proposatzen da. Hainbat arrazoi ikusi ditugu hautu hori egiteko: lehenik eta behin, gai honetan aditu izan gabe edonork ulertzeko moduko termino argi eta ulerterraza delako; bigarren, indarkeria-mota hau emakumeek pairatzen dutela nabarmentzen delako eta; hirugarren eta azken, uneotan bera delako adostasun sozial eta politiko handiena biltzen duen adierazpidea eta agiri juridikoetan eta nazioartekoetan¹ erabiltzen ari dena. Nahiago dugu “genero-indarkeria” terminoa baztertzea, horren helmena eta esanahia argi zehazten ez bada edo espresuki 1/2004 Lege Organikoari ez badagokio, behintzat, azken aldi honetan hainbat sektoretan indartzeaz gain estatuko araudi berrian azaltzen bada ere, denek ez dutelako esanahi berarekin erabiltzen, eta ondorioz, argitu beharrean nahasmendua ari delako eragiten. Izan ere, “emakumeen aurkako indarkeriaren” sinonimotzat erabiltzen da batzuetan, eta bestetan, berriz, zentzu zabalagoa ematen zaio eta genero-harremanen ondorioz pertsonen –emakumeak bereziki, baina ez beti- paira dezaketen edozein indarkeria-motari egokitu. Zenbaitetan, halaber, emakumeen aurkako indarkeriaz jardutean erabiltzen da, baina soil-soilik bikote-harremanetan ematen denean.

Emakumeen aurkako indarkeria definitzeko, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* 50. artikuluan eta 2002ko apirilaren 30ean *Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Estatu Kideei Emakumea Indarkeriaz Babesteko onartutako Gomendioan* jasotakoa erabiltzea proposatzen da:

“...sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.”².

Aipatutako Gomendioan adierazitakoaren arabera, honako hauek sartzen dira indarkeria horren barruan, nahiz ez diren bakarrak:

¹Hor daude, besteak beste, NBEren Adierazpena, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzearen ingurukoa (1993); Emakumearen gaineko Pekingo IV. Mundu Konferentzian onartutako Ekintzarako Oinarria (1995); Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako Gomendia emakumeari indarkeriaren aurrean babesa ematearen inguruan (2002), eta emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak arintzeko eta indarkeria hori Europar batasunetik ezabatzeko jardunbide egokietarako Gida (2002).

² Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzearen inguruko NBEren Adierazpenean (1993) eta Emakumearen gaineko Pekingo IV. Mundu Konferentzian onartutako Ekintzarako Oinarrian (1995) jasotako definizioak ere ildo beretik doaz.

- a) Familian edo etxean gertatzen den indarkeria, hala nola: eraso fisikoa eta mentala, abusu emozionala eta psikologikoa, bortxaketa et sexu-abusuak, intzestua, senar, mutil-lagun edo noizean behinkako lagunek edo berarekin bizi direnek emakumea bortxatzea, ohorearen izenean egindako krimenak, emakumeen aurkako mutilazio genital edo sexuala eta emakumearen kaltetan oraindik bizirik dirauten hainbat ohitura, behartutako ezkontzak, besteak beste;
- b) Gizartean gertatzen den indarkeria, honako hauek, besteak beste: bortxaketak, sexu-abusuak, lantokian, erakundeetan edo beste hainbat lekutan gertatzen den sexu-jazarpena edo larderia, esplotazio sexual eta ekonomikorako emakumeen legez kanpoko trafikoa eta turismo sexuala;
- c) Estatuak edo haren agintariek eragindako edo onartutako indarkeria;
- d) Gatazka armatuko egoeran emakumeen giza eskubideak urratzea, hala nola: emakumeak bahitzea, lekualdatzera behartzea, sistematikoki bortxatzea, sexu-esklabotza, haurdunaldi behartuak eta emakumeen trafikoa (sexu-esplotaziorako edo esplotazio ekonomikorako).

Etxeko tratu txarak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmenean jorratzen diren emakumeen aurkako indarkeria mota biei ekingo diegu ondoren.

1. Etxeko tratu txarrak

Lehen azaldu legez, emakumeen aurkako indarkeria emakumeen aurkako etxeko indarkeria baino zabalagoa da, eta leku anitzetan ager daiteke: familiaren edo harreman afektiboen esparruan, lanlekuetan eta ikastetxeetan, erakundeetan eta abarretan.

“Etxeko indarkeria” adierazpidea berdin erabiltzen da hizketa arruntean nola profesionalean. Europako Batzordeak glosategi bat egin zuen 1999. urtean, *Berdintasunerako 100 hitz*. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko terminoen glosategia izenekoa, eta bertan, honela zedarritu zuen “etxeko indarkeria” terminoa: “edozein indarkeria-modu, fisikoa, sexuala edo psikologikoa, familiako kideren baten segurtasunari edo ongizateari arriskua dakarkiona; bortxa fisikoa edo emozionala nahiz bortxa fisikoaren mehatxua erabiltzea familian edo etxe barruan, sexu-indarkeria ere barne. Hemen sartzen dira umeen aurkako tratu txarrak, intzestua, emakumeen kontrako tratu txarrak eta etxe berean bizi den edonoren aurkako sexu-abusuak edo beste era bateko abusuak”.

Hortaz, honako hau joko da emakumeen aurkako etxeko indarkeriatzat³: emakumeari min eman edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa ekar liezaiokeen egiteko edo ez egite oro nahiz kontrolatzeko edo mehatxatzeko jokabide, baldin eta familia-harreman baten eta/edo harreman afektibo baten barruan gertatzen bada, den harreman hori une horretan bizirik dagoen bat edo iraganeko bat. Indarkeria hori jarraituki erabiltzen bada, eta kontrolatzeko, menderatzeko, azpiratzeko eta harremanean aginte- eta botere-jarrera atxikitze erabiltzen bada, etxeko tratu txartzat jotzea proposatzen da.

Etxeko tratu txarren oinarria, aldeztatik ematen den botere-harreman bidegabe bat izaten da; izan ere, etxeko tratu txarren azken helburua ez da lesio jakin bat eragitea, baizik eta bestea azpiratzea eta menderatzea, eta harremanean aginpide- eta botere-jarrera bat atxikitzea. Hori dela eta, etxeko tratu txarrak, gehienbat, gizonezkoek eragiten dituzte, beren bikotekideen edo bikotekide ohien aurka.

Erasoak nolakoak diren kontuan hartuta, tratu txarrak lau motatakotzat hartzea proposatzen da:

- a) Fisikoa. Biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da. Besteak beste, halako jokabideak barne sartzen ditu: bultzatzea, jotzea, erretzea, edota biktima erasotzeko armak edo beste tresnak erabiltzea.
- b) Psikologikoa edo emozionala. Biktimaren osotasun psikikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da. Besteak beste, honakoak barne hartzen ditu: mehatxua, laidoa, iraina, gutxiespena, arbuio afektiboa eta, elkarrekintza, isolatze eta inkomunikazioa bezalako ekimenak blokeatzea.
- c) Sexuala. Biktimaren baimenik gabe egiten diren sexu-praktikei deritze.

³ Badira "etxeko" terminoa erabiltzearen aurkako iritzia. Bi dira funtsean aipatzen diren argudioak: bata, "etxeko" hitzak huskeria edo garrantzi gutxi zerbaitz ari garela ulertaraz dezakeela eta, bestea, indarkeria honen sustraia familian dagoela eta ez gizartean. Lehengo argudioari gagozkiola, gure iritziz, hori uste dutenek badute jite androzentriko bat, zeren etxekoa hutsala delako ustea sistema patriarkalak guri guztiori ezarritako balore-sistemaren eraginaren ondorioa baita, izan ere, sistema horrek gutxietsi egiten baitu emakumeekin edo emakumetasunarekin zerikusia duen oro. Bigarren argudioarekin bat gatozen arren, uste dugu "etxeko" terminoa ezin dugula baztertu, nahiko hedaturik dagoelako eta pertsona gehienek ulertzeko modukoa delako, eta, orobat, horren ordezkari egokirik ere ez dugulako aurkitu; "tratu txarrak", edo "genero-indarkeria" bezalako terminoak, aditu batzuek erabiltzen dituzten arren, errealitate zabalagoak izendatzen dituzte: tratu txarrak elkarbizitzazko eta/edo afektuzko harreman batetik kanpora ere gerta daitezke (hala nola, zenbait erakundetan gertatzen direnak, espetxeetan, atxiloteta-guneetan, psikiatria-erakundeetan eta abarretan); bestetik, "genero-indarkeria" terminoak, emakumeek beren sexua dela-eta jasaten duten era guztietako indarkeriak hartzen ditu. "Etxeko" izenlagunak emakumeen aurkako indarkeria non gertatzen den zehazteko balio digu eta, horregatik, hura erabiltzea proposatzen dugu, hori bai, testuinguruak argi uzten baldin badu eremu pribatuko edo familia barruko arazo batez soilik ez garela ari.

- d) Ekonomikoa. Diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzekoa ukatu egiten zaizkio tratu txarrak jasaten dituen pertsonari. Honakoak hartuko lituzke barne: xantaia ekonomikoa, diru-sarrerak erabat kontrolatzea, elkarren arteko ondasunetan emakumeei esku hartzen galarazi edo mugak jartzea, emakumeari lan egiten ez uztea edo janari-pentsioa ez ordaintzea.

Ohikoena da harreman berean era bateko eta besteko tratu txarrak agertzea.

2. Sexu-indarkeria

Sexu-erasotzat jotzen dira, beste pertsonaren adostasunik gabe gauzatzen diren izaera sexualeko jokabide guztiak. Honelako jokabideak hartzen ditu: exhibizionismoa, hitz lizunak, zirriak, laztanak, bortxaketak, etab.

Hiru motatako sexu-erasoak bereiztea proposatzen da:

- a) Sexu-erasoak. Indarkeria edo larderia tarteko direla gertatzen diren erasoak dira. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen.
- b) Sexu-abusuak. Indarkeriarik edo larderiarik gabe egiten diren erasoak dira. Hemen sartuko lirateke nahimena edo adimena gutxiagotuta edukitzeagatik (adingabekoak, zentzurik ez daukaten pertsonak edo ezgaitasun psikiko batzuk dauzkatenak, eta abar) baliozko adostasunik eman ezin dezaketen pertsonen aurka egindako abusuak .
- c) Sexu-jazarpena. Sexu-izaerako erasoak dira, hitzezkoak, hitzik gabekoak edo fisikoa, laneko, eskolako edo antzeko harremanen barruan gertatzen direnak. Honakoak izaten ditu xede eta ondorio: pertsonaren duintasunari erasotzea edo pertsonaren inguruan aukako giro beldurgarria, laidogarria, umiliagarria eta iraingarria sortzea. ⁴

Vitoria-Gasteiz, 2005eko azaroaren 25a

⁴ Emakueen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzararen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 43.1. artikuluan eta 2002/73/CE Zuzentarauan jasotako definizio bera da.